

EUSKERA ZALEAK

BATASUNA

* * *

AMAR URTEKO BATUA

Gaur egungo umeak, mutil eta neska, oiñak lurrean iminten dautsoeguzan baño len, praka luzez jazten doguz.

Baiña amar urteko mutiltxo Batua, praka mrotzetan darabilgu, seiñekogiñtzan diarduenen eretxi ta elburu ezbardinak izatearen erruz.

* * *

EZBARDITASUNA

Batuako argin eta arotzen artean, norbereke-riak eraginda edo, ezbardintasun nabarmena agiri da aditzetan, izenetan eta arderazko ta euskerazko itzak batzuek beste batzuek baiño ugariago ager-tzean.

Emen: *6lupi, txiki, pizti, piri; Iruina, Iruinea, Iruin^za; erantzuna, arepostua; Biltzarra, asanblada; atzerriratu, extrainatu; autarkia, boza; askatu, libralu; t. a.*

Itz oneik danak izango euskaldun, baiña ira iztegi andia bear samatik di_zdiiizka.

BIZKAIERIA KONTUAN

Danontzat ulergarri izan daiten, izen bako itz bakar bat bear ba'dogu, zergaitik Drren beste izen ezbardin gauza bat esateko?

Eta batasun egokia egiteko Zubaroa, Napa, rroa, Lapurdi ta Gipuzko bateratu bearrekoak ba'doguz, zergaitik bizkaiereari orrenbesteko ez-ikusia?

* * *

ERANTZUN BAT

Oraindik oraintsu, izenberik bageko orritxu batean, «bizkaiera, sasi-euskara» irakurri izan dogu.

Oraingo lan au amaitzerakoan, bijoakio ba, «bizkaiera sasieuskara»ren egilleari nire aldetiko itaun au: I eu, txotxo, cure izenagaz batean aitaren aldetiko abizen edo deitura ez agertzean, esango al daukaguk izara artekoa, sasikoa ala-ta nongo aita ezezagunaren semea aizan?

LANDAJUELA'tar A. 'k

ZER DA

Ildoa? Lurrean egiten dan zuloa edo orretan iraultzen dan lurra:

Mezua? Beste bateri esateko artzen dan jakingarria.

Oroigailua? Zerbait gomutatzeko indarra daukan gauzea.

Abagunea? Erea, ordu egokia.

Asaldatu? Barrua artegatu, norbaiten aurka jarri, matxi-nadaren bat egin.

Arrauna? Txalupea uretan eroateko indarra artzen dauan zurruna.

Damotsat? Emoten dautsat.

Bidenabar? Bide batez, labur, ariñeketan.

Aldarte? Lanik bako aldia, gogo-egoera ona.